IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

Esp.zk.: 2026WDI10002
Gaia: HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEA: Zuzeneko dirulaguntza 2026

ALKATE DEKRETUA

Kontuan izanik, Eusebio Uberetagoena Arratibelek, Hauspibarra Kultur Elkartearen izenean (G20808341 IFK zk.), 2026ko urtarrilaren 27an, “Hauspoa kultur elkarteak 2026 urtean garatuko duen programazioa” proiektua gauzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztu zuela (425 sarrera zk.).

Kontuan izanik, 2026ko urtarrilaren 27an 2026WDI10002 espedientea ireki dela.

Kontuan izanik, 2026ko urtarrilaren 28an Kultura eta Gazteria teknikariak egindako 2026-KG-TXOS018 txostena.

Kontuan izanik, 2026ko martxoaren 12an Udal Idazkariak egindako txostena.

Kontuan izanik, 2026ko martxoaren 11ean Udal Kontu-Hartzaileak egindako txostena.

Alkaordetza honek**,** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 23.3 artikuluan arautzen denarekin bat, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikuluaren arabera eta 153/2025 Alkate Dekretuetan esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa,

EBAZTEN DU

LEHENA.- Ibarrako Hauspibarra Kultur Elkarteari (G20808341 IFZ zk.) 2026 urtean zehar gauzatuko duen “Hauspibarra kultur elkarteak 2026 urtean garatuko duen programazioa” izendun proiektuari zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal kultura zaintzea eta zabaltzea helburu duen elkarte bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare inmateriala diren ohitura ezberdinak bultzatzen dituelako, herritarren artean zabaltzen dituelako eta haien transmisio eta babeserako lan egiten duelako.
3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarrari izen ona eta ospea ematen diolako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal kultura herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarrako herritarrei oro har, herrian bertan euskal kulturan murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

BIGARRENA.- Honako jarduerak jartzea diruz lagungarri gisa:

- Mugikor bidezko argazkigintza ikastaroa (urtarrilak 7-otsailak 2)
- Santa Ageda bezpera otsailaren 4an.
- Antzerki emanaldia martxoaren 6an.
- Emakumeen afaria martxoaren 6an.
- Sukaldaritza ikastaroak.
- Dantza emanaldiak.
- Zinema.
- Sanjoan bezpera ekainaren 23an.

IBARRAKO UDALA • San Bartolome 2, 20400 Ibarra ✉ harrera@ibarra.eus ☎ 943 671 138

- Olentzeroren jaitsiera abenduaren 24an.
- Urtean zehar herriko elkarte eta eragile ezberdinekin elkarlanean sortu daitezkeenak.

HIRUGARRENA.- Ematea 13.000,00 euroko dirulaguntza zuzena Hauspibarra Kultur Elkarteari, bi zatitan ordainduta:

- Lehenengo ordainketa (hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean): 11.050,00 € (dirulaguntzaren % 85).

- Bigarrengo ordainketa: 1.950,00 € (dirulaguntzaren % 15) egindako gastua justifikatzen duen kontua alkate dekretu bidez onartzerakoan.

LAUGARRENA.- Egoztea aipatu diru kopurua 2026ko 1.09.334.00.481.01 2026 (226) Dirulaguntza zuzena Hauspibarra kontu-sailari.

BOSGARRENA.- Ibarran 2026an "Hauspibarra kultur elkarteak 2026 urtean garatuko duen programazioa" proiektua gauzatzeko eta diruz laguntzeko, Hauspibarra Kultur Elkartearekin lankidetza hitzarmena sinatzea.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesdunari jakinaraziko zaio.

ZORTZIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Kontu-Hartzailetzari.

BEDERATZIGARRENA.- Dekretu honen berri ematea Udalbatzak egiten duen hurrengo ohiko bilkuran.

Ibarra, sinadura digitalaren datan
ZINEGOTZI AHALORDEDUNA

Nekane Lazkano Prieto

IBARRAKO UDALA • San Bartolome 2, 20400 Ibarra ✉ harrera@ibarra.eus ☎ 943 671 138